

Separatismorik ez!



Zigor Etxeburua
Urbizu

KONTSEILUKO KIDEA
@ZEtxeburua

Wikipediaren definizioaren arabera gizarte-bazterketa da “pertsonen gizarte-ongizatea eta bizi-kalitatea eskuratzeko jasaten dituzten oztopo sozial, ekonomiko edo politikoen multzoa, gizartearen sistemaren modu egokian ez integratzeagatik”. Nafarroan, hainbat dira definizio horren baitan sartzen diren marjinalizazio-egoerak, baina bada bat lege ezarrita dagoena, 1986tik: euskaldunon hizkuntza eskubideen zonifikazioa. Gizarte eskusioa gaitza bada, are eta okerragoa da diskriminazio hori lege ezarrita badago, horrek antza handiagoa baitu gizarte kolonialista batena, demokrazia formal batena baino. Hain zuzen ere, 1988. urtean, nafar gazte irudimentsu batzuek izena jarri zioten pairatzen ari ziren egoera horri: *Napartheid*. Ez zitzaizen bidezkoa iruditzen beren etxean bertan baztertuak izatea, eta paralelismoa egin zuten urte haietan, Hego Afrikan, pertsona beltzak pairatzen ari ziren *Apartheid* izeneko erregimen kolonial gordinarekin.

Bada, 29 urte geroago, lege baztertzaila horrek indarrean jarraitzen du, baina baita kolonialismo orok berarekin duen nagusikeriazko eta segregaziozko pentsaera arrazistak ere. Aldaketa politikoa gauzatu nahian ari den honetan, metropoliko alderdien eta UPNko tradizionalista eta jauntxoaren diskurtsoek ez

dute aldaketarik izan. Areago, orain, erregimen zaharreko politikariek nagusikeriazko diskurtso antisoziala ekintzetara eraman dute, Nafarroako Gobernuak erabaki duelarik hezkuntzako lan deialdietan hautagaien zerrenda bakarraren alde egitea. Hezkuntza sailaren erabakia deuseztatzeko, helburu zehatzeko lege bat proposatu du PSNk, premiazko prozedura erabiliz, eta Ezkerria-Ezkerraren laguntzaz.

Zerrenda bakarraren aurka eginez, separatismo arrazista defendatzen ari dira; xenofobia linguistikoa hauspotuz, gizarte kohesioaren aurka ari dira, bandokeria indartuz. Gainera, lanerako eskubidea zalantzan jartzen ari dira, euskara ez jakiteko pribilegioari eutsi nahian. Alde orotatik da antisoziala. Baina Ezkerria-Ezkerrak ez du euskalgintzako eragileekin hitz egiten, ez dute beste argudiorik entzun nahi, eta beraingandik espero ez den jarrera totalitarioa eta antisoziala erakusten ari dira.

Gobernuaren erabaki aurreragarri hau babestu behar dugu, euskararen mesederako izateaz gain, gizartearen normalizazioaren onerako baita. Ezkerria-Ezkerraren jarrera baldintzatzea lortu behar dugu, kaletik. Entzun gaitzala. Hitzordua dugu, abenduaren 16an, eguerdian, Iruñean. Gizarte nafarraren kohesioaren eta normalizazioaren alde. ■

Tabula rasa



Itxaro Borda
IDAZLEA

slandiatik etorri zaigu, azken egunetan, Utopiaren soinu banda Björk erraldoiaren eskutik eta urtea bukatzen doala Axiari aita-semeek Joseba Irazokirekin, Omaha hiria- ren bihotzetik oparitzen diguten albuma, biak uztartzen ahal ditugu Eguberriko menskeria kontsumitzaileen hatzak ezabatzeko: buklean entzuten ditugu *Tabula Rasa* eta *Wounded Knee Prayer*... Egiaren errateko Oier Etxeberriaren *Locuela* sinetsi ezinak belarri zokoan dauzgula garunak alaitzeko!

Erakunde armatuak orain presoak beraien bi-deak azpatzeko aske utzi ditu, legedia komunak onartzera hots, hainbat urtez estatutu politikoa

aldarrikatu ondoan! Borroka galdua zela ikusi zukeen garaian bertan abandona zezakeen kartzelako gai hau. Arren, hurbildu daitezela presoak, atera daitezela atera behar dutenak eta hortik aurrera herri honen etorkizuna birpentsa dezagun kolektiboki eta guhaurrekiko begi kritikoa landuz, biolentzia eta bortizkeria jaiduren nostalgiarik gabe.

Elurak estaltzen ditu Reykjavikeko ilunpeak eta Springsteenek aspaldi abesturiko Nebraskako lautada hormatuak. Musikak salbatu gaitu betidanik. Aldion ere *tabula rasa* egitear gaudenean, melodia anitzek eramango gaituzte urratsez are harago. ■